

Unidad Alavesa eta Harria taldeak Kiñu Gaztetxean

21. orrialdea

Tubi txapeldun Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketan

Zezeilaren 19an lortu eban dimoztarrak txapela Mungian, fardoak 6 metro eta 40 cm-ko altuera gaindituta. Bigarrenari metro bat eta 30 cm-ko aldea atera eutsan. Tubik Euskal Herriko Lasto Botatze txapel guztiak irabazi ditu: hamabost txapel. 18. orrialdea



Onditz Iturbek irabazi dau bere lehen lasterketea talde barriagaz

19. orrialdea

Agenda feminista potoloa prestatu dabe martirako

Aldarrikapenak be ez dira faltauko martiaren 8an Igorren egingo dan Arratia mailako manifestazi-
noan, ezta hainbat herritan egingo diran elkarretaratzeetan be. Zeberion, Bilboko manifestazinora
joateko autobusa egingo da. Mota desbardinetako ikuskizun eta tailerrek, andren egoerearen barri
emongo dabe. **8., 9. eta 10. orrialdeak**



Mozorro eta disfrazak ikusi ziran herrietan



Herri batzuetan ez zan jente askorik animau mozorro edo disfrazaz janztera, baina animau ziranek jai giro berezia ipini eben herrietan. Aratusteak, originaltasun eta sormenaren jaiak izan dira aurtan be, argazkietan ikusi daiteken moduan. **12., 13., 14. eta 15. orrialdeak**

ZEBERIO

Igaz baino %11,45 diru gehiago kudeatuko dau aurtan Udalak

Zezeilaren 24ko osoko bilkuran onartu ziran 2023ko aurrekontuak Zeberion. Guztira, 1.692.646 euro dira. EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz onartu ziran. Auzoetako bideak konponduteko erabiliko dan diru partidea ia bizkoiztu egin da aurtan. **5. orrialdea**



LEMOA

Lemoatxako lubakiak barriztuteko lanak egiten jarraituen dau Udalak

Lemoako Udalak, Aranzadi alkatereagaz batera, Lemoatxako lubakietan zementuzko zaku batzuk ipini ditu oihalezko bilgarri berezi batez, denporearen poresuz bat egin dagien lubaki lerroaren formeagaz. Teknika hau erabiliko dabe udaro auzolandegietan parte hartzean daben gazteek be. **7. orrialdea**



IGORRE

3.500 bonu bananduko dira herriko merkataritza bultzatzeko

Igorreko Udalak eta merkatariek ohiko Bonodenda kanpaina ipini dabe martxan eta apirilaren 30era arte erabili daitezke bonuak kanpaineagaz bat egin daben saltokietan.

Bonu bakoitza, 10 euroren truke eskuratuko da, baina kanpaineari atxikitutako dendetan 15 euroko balioa izango dau.

Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitezke kanpaina honetako bonuak, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzen eta eguenetan 18:00etatik 20:00etara. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

BIZIA MIN

Nafarroako Kutxa Fundazioaren Gazteentzako I. Poesia Saria irabazi eban Jon Ander Urkiagak *Bizia min* poema sorteagaz. Aurretiaz, eta genero berean, *Atea itxi aurretik* (Erroteta, 2012) poema liburua idatzi eban. Poesiaz gain, badauka bestelangorik; eta, oin gitxi dala, gazteentzako literatura-jauzi egin, eta *Mendekua ordainetan* lana plazaratu dau (Alai argitaletxea, 2022).

Herioari ateratako bizipen eta irakaspenez osotua dago liburua. Aitaren heriotzea dabe oinarri. Eta hori holan izanda, poema batzuek danbatekoz ixten dan atearen ezin negona eragiten deuskue, edota irensteko zaila dan txistuak eragindako gorputzaldia itxi. Eta holan behar dau izan, zelan ez. Herioari

eskin egin guran bizitza emoten daben izakiak besterik ez gara-eta. Hurrengo egunean barriro esnatuko garan esperantzea, edota porru-patata lapikoa barriro bor-bor egiten ikusteko gogo. Desira txikiak, baina seguruena ezinezkoak. Hilurren doguna laztandu, eskutik heldu, eta gaua haregaz igaro. Miraririk edo goiko salbazinorik espero ez dauan zaintzailearen konbenzimentuagaz. Ikuskizunetik librau ezin daitekenaren, edo, hobeto esanda, librau gura ez dauanaren etsipenagaz. Eta leihotik haragoko negarrak, norberarenak, partekatu ezin. Une latz, petral, gozakarxak... Marina Dor bezalako oporleku kaskar eta narrasetara alde egiteko amets txepetlara garozanak. Halakoak

eskaintzen deuskuz poema batzuetan Urkiagak. Bizia min egiten dau-eta, ezta?

Baina heriotzatik be bada zer ikasirik. Eta biziari baikor begiratu gura deutsan poeta aurkitzen dogu beste poema batzuetan. Dilindan dagoan soka -bizitzaren soka irrastakorrean-, irribarre egin gura dauan funanbulistea. Naturearen mugabakotasun distiratsueguz txunditzen dan artistea. Heriotzean be badira erreka, katgorri jostariak, edota birigarro kantariak.

Bederatzi izeneko poeman, balea bat itsasoan dakusa poeteak. Dotore jauzika. Gizona, oster, lehorrean. Ezdeusa. Hutsala. Hauskorra. Baina halako ikuskizunak biziteko edo amesteko be balio daike bizitzak, eta hori iradoki

gura deusku idazleak. Bizitzaren ikuskizun goitar edo gorenak debekatuak doguz izaki soilok; baina geu be bagara hareen parte, neurri batean.

Bizia min egiten dau, ados. Baina minetik eta ederretik edateko konbitea egiten deusku Urkiagak. Poemetan bidaltzen deusku gonbidapena. Norberaren erabakia izango da Zornotzako idazlearen proposamen poetikoan murgildu, eta aurreko guztiak eta beste hainbat deskubridutea.

Mikel Urkixo



Jon Ander Urkiaga

Bizia min

Lucas de Gálíbo, 2021

72 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 27tik martiaren 5era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 6tik 12ra

Traver. Bedia. J.A. Agirreren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Martiaren 13tik 19ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan ordu 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 linea. Bilbo-Galdakao-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era ordu.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era ordu.

3912 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era ordu.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketee:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XX).
Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETEN ERANTZUNAK:

- Joango gozana (gara) beherapenetara Miren?
- Etxeukanat (ez daukat) gogorik Maite.
- Benga! Sos batzuk jekonazat (daukadaz) aurreztuta eta.
- Bai, baina zeozer erosten bostena (badeustazu) bakarrik!
- Hik dekona (daukazu) arpegia!

ERETXIA

Zero bazterketea



AINARA ARREGI
Kazetaria

Martia heldu da, eta se-guruenik, hau irakurten zabizien irakurle askori, martia hilabetea aitatuta, hilaren 8an ospatzen dogun Emakumearen Nazinoarteko Eguna etorriko jatzuela burura. Baina badakizue martiaren 1ean ze egun ospatuten dan? Zero Bazterketearen Nazinoarteko Eguna da, hau da, edozelango bazterkeriaren edota diskriminazinoren kontrako eguna.

Nazino Batuen Batzar Nagusiak 2013an izentau eban martiaren 1a Zero Bazterketearen Nazinoarteko Egun moduan lehenengoz, Giza Eskubideen Adierazpen Unibersalak lehenengo artikuluan esaten dauana oinarri hartuta: andra-gizon guztiok aske jaio-tzen gara, duintasun eta eskubide berberak doguz, eta ezauguera eta konzientzia daukagun ezker, alkarren artean senide legez jokatu beharra daukagu.

Ez dakit neure sensazinoa dan, edota, benetan, gizartea, azkenaldian, erabat aztoratuta dabilen. Bazterketa eta gitxiespen egoerak bazter guztietan ikusi eta sentiduten dodaz. Hasi andretatik, etorkinak, desgaitasuna daukien personak, adinekoak, gazteak, jubilauek... Edonon entzun eta ikusi geinkez, gizartean baztertuta sentiduten diran persona eta taldeen adierazpen eta aldarrikapenak, bakotxa bere duintasun eta eskubideak aldarrikatuz.

Androk kalera urtengo gara martiaren 8an, beste behin be, andren eskubideen aldeko burruka desbardinak gogoratu eta eskubide horreek bete daitezala eskatzeko, gaur-gaurkoz, oindino be, androk, gizarteko hainbat arlotan, baztertuta gagozalako. Etorkinak be, hortxe daukaguz inok guretzako gura ez doguzan baldintzetan "biziten", baztertuta. Bazterketa eta diskriminazino egoerarik begibistakoenak desgaitasunen bat daukien personek jasoten dabe; gizarteratzearen izenean, pausu

asko emon diran arren, oindino be, zenbat eta zenbat ikasi behar dogun, edozein desgaitasun daukien personek, desgaitasunik ez daukagunon moduan bizi daitezat. Adinekoen kasuan be, behin 65 urte bete ezker, danak moltso bardinean sartzean doguz, euren norbanako ezaugarriak kontuan hartu barik. Bardinak ete dira ba adineko persona guztiak? Behin adinekoen taldera ailegautakoan, eskubideak be amaitu egiten ete dira ba? Beste horrenbeste, gazteakaz. Gazteak danak moltso bardinean sartzean doguz, euren ezaugarri personalak kontuan hartu barik. Danak errespetu bakoak, bizizaleak, eta, sakrifizio bakoak dirala benetan pentsetan dozue? Ez dagiguzan baztertu, eta entzun daigun zer daukien esateko. Zer esango ete dabe jubilauek? Honeek badakie bazterketa benetan zer dan. Gaur egun, pensino duinen alde kalera urtetan diran asko, sasoi baten be, hainbat greba eta protesta eginda dagoz, gaur gure eskubideak diranak aldarrikatzeko.

Zerrenda luzea izango zan, gizartean jasaten daben bazterketea salatu, eta, euren eskubideen alde lanean dabizen taldeen izenak aitatu ezker. Baina oinarrian, galdera hauxe dago: Ze gizarte eregi gura dogu? Zelango personek osotutako gizartean bizi gura dogu? Bada, bakotxa bakarra eta autentikoa garan heinean, ezin dogu inor baztertu, eskubideak eta duintasuna danontzat bardinak diralako.

Horregaitik, martiaren 1etik harago, gogoan izan dagigun, gizarte justu eta kohesionatuagoa lortzeako, bazterkeriari ezetz esatea.



LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Otsaila

Haizea dator ekialdetik, fin-fin, laztanduz negu zarpaila, besarkatuz samina, zurbil, bortitz, hotz. Otsaila. Otsoen hilabetea. Soinu lazgarriak iristen dira gure belarrietara. Entzuten al doguz? Negarrak. Aienak. Garrasiak. Aditzen al doguz? Irudi ilunak, gordinak, edurraren zuritasun biluziak gorde ezin dauzanak. Ez doguz ikusten. Begien aurrean iluntasun amaibakoa, parez pare. Pausuak. Leherketak. Eztan-dak. Tiro-hotsak. Aginduak. Bildurra usaindu egiten bada be, goizero gure berezko usai-na mozarrotzeko geure buruari botaten deutsagu perfumea. Usaimenik ez, beraz. Odolaren metal gustua. Gaua. Gaueko haizearen fir-firak, eraikineko zein gorputze-ko arrakalak zeharkatu egiten dauz, garratz. Hotza. Otsoa. Otso-hotza.

Otso-hotsa. Hotz-otsaila. Bildurrak arnastu be ez egin arren, gu, mendebaldean, es-peroan gagoz, eguzki amandrea noz agertuko zain, baso itxitik mendiz inguratutako larreetan bere izpien argia eta berotasu-na noz sentidu arte, gu, mende-baldean, esperoan, mutu-mutu. Ukraina... Bi minutu eta hurrengoa... Palestina... Minutu bat eta hurrengoa... Afganistan... Segundo bakar bat eta hu-rrengoa... Nolako egurra, halako sua dino esakereak, baina egur ba-rik surik ez eta su barik berorik ez; guk, oster, mendebaldean bai sua, bai egurra badogu, ha-landa be, zer su eta zer egur klase gara? Kanean gagoz, itxuraz libre, ara-tusteen "txorimalo", antza; baina betirako preso, ikusitakoari, en-tzundakoari, gertatutakoari... le-poa emoten deusagulako. Mundu barreneko eta gizar-teko otsoei, noz egingo deutse-gu aurre?

ZERTZEAN



SAIOA LARREA

Kanpoan uso, etxean otso!



BEGI TXINDORRA

Sano gozoa egon zan tarte eta erredakzinoan ospatu genduan 400. zenbakiaren mugarria. Ospakizunak eta jaiak beharrianak dira gizakiontzat: egun bi baino ez bagara hemen egongo, gozatu beharra dago, txokolate eta esne-gainez egindako tarta gozoategaz, barbarako. Ez dago jakiterik BEGItuk paperean beste 400 egingo ete dauzan, bai-na egin ezker, 800. zenbakiak be, mereziduko dau ospakizunen bat. Hau, 401. zenbakia da, gero eta gitxiago falta da 800 egiteko!



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

LEMOA

Lau urteko indarraldia izango dauan enplegu proiektua abiatu dau Lemoako Udalak

Lemoako Udalak Lemoan lan izeneko proiektua finantzatu eta bultzatuko dau, Aldalan orientazino eta enpleguko aholkularien laguntzeagaz.

Erredakzinoa

Proiektua 2023tik 2026ra egongo da martxan, jasagarritasuna eta tokiko enplegua bultzatzen. Proiektu pilotu hau lan merka-duaren egindako diagnostikotik sortu da. Diagnostikorako 115 enpresa kontaktau ziran eta ikusi zan euretako %13 kontratazinoak aurreikusten ebezala; aurreikus-ten eben euren enpresetan hurrengo hilabete edo urteetan hutsik geratuko zirala hinbat lan-postu %7,4 izan ziran, eta %27ri lan-boltsak eukitea iruditzen ja-kien lanpostuak beteteko modu-rik aiproposena.

Lemoan Lan
Udalak, beste tresna bat gehiago

ipini gura izan dau lan bila da-bizenen eskuetara "beste tres-na bat gehiago, lana topetako helburua lortu dagizuen" azal-du eben Udaletik proiektuaren aurkezpenean. Lemoan Lan, Le-moan erroldatutako langabe edo lana hobetu gura dabenei lana topatzen lagunduteko da. Pro-graman izena emoten dabenek, enplegua eskaintzen dauan bu-letina jasoko dabe etxean bariku-ro; orientatzaileakaz banakako saioak izango ditue bilaketea personalizetako, eta lagungarri izan daiteken formazinoa jasoko dabe. Formakuntzari jagokonean, lau arlo landuko dira: oinarrizko gaitasun digitalak; lana bilatzea; enplegu publikoa eta ekintza-lei-tzea aukera moduan.



ARTEA

Arteako eskolako baso txiki margotua

Erredakzinoa

Agustin Ibarrolaren Omako baso margotuan inspirauta, Arteako esko-

lako 2 eta 3 urtekoek, zugatz enbo-rak pintau eta landatu dabez eskola ondoan, baso margotu bat irudika-tuz. Arbolen goiko partea irakasleek pintau arren, "beheko partea, eurek pintautako moduan dago, ikutu barik" azaldu deutso BEGITUri Iraide Idoiaga irakasleak. Zugatzak sartzeako orduan be, atxurra hartuta ibili ziran etorkizuneko artista honeek.



ZEBERIO

Udalak 1,69 milioi euro kudeatuko ditu

Erredakzinoa

Zezeilaren 24ko osoko bilkuran onartu ziran 2023ko aurrekontuak Zeberion eta guztira, 1.692.646 euro kudeatuko dira aurten, 2022an baino %11,45 gehiago. EAJko kideen aldeko bost boto eta EH Bilduren kontrako lau bo-togaz egin eban aurrera aurrekon-tu "parte-hartzaileak", baina ezker abertzalearen ustez "herriaren zati handi bat kanpoan itxi" da eta "aurreko urteetako arazo bardinak errepikatzen" dira.

Inbersinoetarako partidea, 261.000 eurokoa da eta zati han-diena, 73.100 euro, auzoetako bideak konponduteko erabiliko da. "Herritarren eskariari" eran-tzuteko partida hau ia bikoiztu da atzen urtetik; orduan ez zan 40.000 eurora heltzean. Honeri, bide bazterretako sastrakak ken-tzeako erabiliko diran 29.874 eu-roak gehitu behar jakoz.

Beste alde batetik, udal eraiki-nen azpiegiturak mantenu du zein hobetzeko 72.290 euro inber-tiduko dira, igaz baino 12.000 euro baino gehiago; eta ener-gia eraginkortasunaren bidean, 6.569 euro. Bardintasun Plane-



Zeberioako plenoko irudia.

rako be inbertiduko da gehiago, 16.700 euro, igazko 9.900 eu-roen aurrean. Euskerarako barriz, 7.500 euroko partida bardina gelditu da eta aurten be, BEGITUk ez dau laguntzarik jasoko, EH Bil-duk partida hori berreskuratzeko eskatu dauan arren.

EH Bilduren eskariak
EH Bilduko zinegotziek ezezkoa emon eutseen aurrekontuei eta euren proposamen gehienak, batu ez dirala adierazo eben. Holan, au-rrekontuak garatzeko batzordean,

alderdien arteko "sintonia" ikusi eben, baina gero ez dala bene-tako akordiorik landu ke jau ziran: "Honeek ez dira aurrekontu parte-hartzaileak, ez da ezer landu". Holan, hainbat eskaera zerrendatu ebezan osoko bilkuran: BEGITUren partidea berreskuratzea, energia barritzagarrietarako dirulaguntzea eta kanpaina, baserri guztietara saneamentua heldu arazotea, baserri hutsak konpondu eta alki-letako dirulaguntzak, ubideen gar-biketea eta konpontzea, liburutegia hobetzea eta abar.

IGORRE

Igorren %33 merkeago erosteko aukerea egongo da Bonodenda kanpaineagaz

Erredakzinoa

Herriko merkataritza eta osta-laritzeari bultzadea emoteko helburuagaz, ohiko Bonodenda kanpaina abiatu dabe Igorreko Udalak eta herriko merkatariek. Aprilaren 30era arte erabili dai-tekezan 15 euroko 3.500 bonu bananduko dira. Bonu bakotxa 10 euroren truke eskuratuko da, baina jaubearentzako 15 euroko balioa izango dau. Kanpaineagaz bat egin daben saltokietan erabili ahal izango dira bonuok.

Bonuok, Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitekez, as-telehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta marti-tzen eta eguenetan 18:00etatik 20:00etara. Igorren erroldatu-takoek erosi daikiez daborduko; erostrarako orduan NAN agiria edo errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dabe. Igorren erroldatu-ta ez dagozanek, martiaren 6tik 31ra arte edo amaitu arte erosi ahal izango dabez bonuok.

Gehienez bonu bi erabili daite-kez erosketa bakotzeko. Eroske-

tearen zenbatekoa txikiagoa bada, ez da dirurik itzuliko. Bonuak ezin dira diruaren truke aldatu.

Atxikitutako komertzioak
Hurrengo komertzio honeetan erabili daitekez bonuok: Ainara kirolak, Aldeiturriaga oinetakoak, Arrabike, Arratek informatika, Bar La Bodeguilla (Doner Kebab Igorre), Bizarginak, Centro belle-za Surya, Decoracion y Pintura Igorre, Edova electrodomésticos, Edur zapata konponketa; Egibe salón de belleza, Eguzki, Ferreteria Iru Deko, Frutaden-da Bea, Garden Igorre, Goloski,

Haize Natura, Hamburgueseria Ikusgarri, Ileapaindegia Elixabete Uriarte, Ilestyle, Ink4North, Iratxo oinetakoak, Joyeria Belaustegui, Jubilatuen taberna, Kantabriko arraindegia, Kili-Kili, Kirru ule-apaindegia, Klitz Igorre, Kukuma, Lorane, Maran kirolak, Marrak paperdenda, Merkalabel, Mue-bles Igorre Altxariak, Mugarri in-teriorismo, Olaetxe optika-audio zentrua, On egin, Orrie, Ostargi jatetxea, Panaderia Lanbreabe, Pedro Dia, Pescaderia Grelmar, Politte!, Rekalde harategia, Sein, Tentazio Gozoa, Txaparro jatetxea eta Zazpi Haizetara.



AREATZA

Lian muralista ezagunagaz egingo dau murala Saioa Larrea zeramikariak

Zeramikagintzan urte asko daroazan arren, 2022ko zemendian ipini eban martxan modu ofizialean Saioa Larreak Buztinola tailerra Areatzan.

Erredakzinoa

Tailerraren kanpokaldean, Lian Monserrategaz alkarlanean, pinturea eta zeramika mosaikoa batzean dituan murala egin gura dau. Lian, Ondarroako *Saregileak* muralaren egilea da; Street Art Cities alkarteak aurten munduko hirugarren onena jo dauana eta Larrearen eskuak tornadoan lanean erakusten dauzan murala egingo dau Buztinolan.

Mural horretarako dirua lortzeako, *crowdfundinga* ipini eban martxan Areatzakoak, arrakasta handiz: behar eban dirua batzeako hilabete eukan, eta lehenengo egunean, sei ordutan, lortu eban proiektua aurrera aterako behar eban dirua. Askatasun kalean zabaldutako zeramikea landuteko espazioak, Buztinola tailerrak, jentek ondo hartu daua dino Larreak. "Tailerrari apur bat bultzadea emoteko, argi naturala sartuteko, leiho handi bat ipini neban eta lokala atundu. Eta hor horma handi bat daukat eta Buztinolaren izena logotipoagaz ipini gura dot". Horrek, bide batez, aspaldiko ametsa beteteko aukerea emoten deutso. "Beti euki dot ametsa zeramika zatitxoakaz murala egiteko herrian. Oin badaukat nire lokala eta hor egingo dot nire muraltxoa, zeramika zatitxoakaz: umeek errekan topautako zatiakaz, nire piezen hondakinakaz, apurtutun diran kizarakaz eta abar" azaldu deutso BEGITU zeramikariak.

Eta bere amesetako murala egiteko, munduko hirugarren politena izentau daben Ondarroako saregileen muralaren egileagaz ipini zan kontaktuan. "Aspalditik neukan fitxauta Lian, bere lana asko gustetan jatalako". Orduan, Areatzakoak, bozeto batzuk eta,



tornadoan lanean bere eskuen argazkiak bialdu eutsazan muralisteari, eta honeri idea polita iruditu jakon, eskuak pintetea asko gustetan jakolako. Muralak, zeramika mosaikoa izango dau osagarri; izan be, pinturea eta zeramikea lan bi ez izateko, bakarra baino, zeramikea sartuko dau irudian Larreak.

Oin datak adostuten dabiz artista biak eta martiaren amaierarantz egitea espero da.

Crowdfundinga

Lianen baiezekoagaz, diruak ez ebalaproiektua geldituko ebatzi eban aratarrak, eta beste lagun biren laguntzeagaz, *crowdfundinga* abiatu eban <https://vkm.is/buztinola> estekan. Behar eban dirua lortuteko hilabeteke epea egoan, baina lehenengo egunean, sei ordutan, lortu eban murala egiteko beste diru. "Halanda be, zabalik dago *crowdfundinga* ze lagunek eta familiartekoe esan eusten dirua ipini gura ebela. Diru hori tailerra hobetuteko erabiliko dot" dino.

Jasotako laguntasuna eskertuteko modua be pentsau dau: "*Crowdfundinga* antolatu genduean pentsau neban aportazioen truke nire gauzak emotea, ez nebalako gura hartu dirua mosutruk. Nire piezakaz eskertu gura neban". Holan, aurkezpen egunean, eskertuteko momentu bat

egongo da eta jenteari euren lotetateak bananduko jakiez. Jentearen laguntasuna muralean agertzea be gura dau eta "bakotxak bere izena edo esaldia edo gura dauana tesela txikitxo baten ipini", eta tesela hori muralean sartzeko asmoa dauka zeramikariak.

Saioa Larrea eta Lian Monserrate Areatzako Buztinola tailerra 2022ko zemendian zabaldu eban arren, ibilbide luzea dauka Saioa Larreak zeramikagintzan. Izan be, 2007an Debako Arte Eskolan zeramikan trebatu zanetik, langintza horretan ibili da Areatzako. Hasikeran, Igorren euki eban tailerra eta oin Areatzako Askatasun kalean.

Lianen izena gurean, batez be, Ondarroako *Saregileak* muralagaz lortutako mundu mailako errekonozimentuari esker ezaguna egin bada be, bere lana lehendik ezagutzen zan Arratian, Lemoako Kulturgunean berak egindako mural eder bat dago-ta. Lian Monserrate, Ameriketako Estatu Batuetan jaio zan 1981ean, baina 16 urtegaz L'Hospitalet de Llobregatera joan zan biziten. 2016an ordea, Euskal Herria etorri zan bizitera, Atxondora, hain zuzen be. 1996an egin eban bere lehenengo murala eta, harrezkero, 700 inguru egin ditu Europen zehar; Italian, Grezian, Alemanian eta Ingalaterran, barbarako.

ARRATIA

Hilaren 4an bananduko ditu Etxerateg alkartasun menuak

Erredakzinoa

Etxerat euskal preso eta deportaduen aldeko alkarteak, alkartasun bazkaria antolatu dau martiaren 4an batu eta etxera eroateko. Menua, babek, sakramentuek eta postreak osotuten dabe eta hamabost euroko prezioa dauka. Eskaerea

egiteko atzen eguna hilaren 2a da. Eskaerea, herriaren arabera, hurrengo telefonoetan egin daiteke: Lemoa, 696 802 763; Igorre, 699 919 085; Artea, 600 389 055; Dima, 656 778 166; Zeanuri, 620 253 725 eta Areatza 655 723 506. Banaketean, martiaren 4an, 14:00etatik 14:30era egingo da


Lemoako Gaztetxean; Igorreko Herriko Tabernan; Artean, udaletxe aurrean; Dimako frontoi txikian; Zeanurin, udaletxe aurrean eta Areatzan udaletxe arkupean.



ARRATIA, UBIDE

Arratia Garbia kanpainako informazinoko lehenengo bueltea martiaren 11n amaituko da Areatzan

Martian Igorren, Arantzazun, Artean eta Areatzan egon ostan, amaituko da Arratia Garbia kanpainako kaleko informazinoaren lehenengo bueltea. Igorren, martiaren 3, 4 eta 6an egongo dira; Arantzazun, 7 eta 8an; Artean, 9 eta 10ean eta Areatzan 11n.



Erredakzinoa

Martiaren 3an, barikua, goizez eta arrastiz egongo da informazino puntua Igorren, Lehendakari Agirre kalean egongo dira 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, hondakinen gaineko informazino emon eta organikoa eukiontzi marroian botateko materiala bananduten. Bezperan, bariku horretan bertan eta astelehenean, hilak 6, berbaldiak egongo dira Kultur Etxean 19:00etan. Astelehenean be egongo dira informazino puntuak, goizez, 10:30etik 13:30era Beheko Plazan, eta arrastiz, 16:00etatik 19:00etara, barriz, Lehendakari Agirre kalean.

Arantzazun, hilaren 7an arrastiz eta hurrengo egunean, goizez eta arrastiz, plazan egongo da informazino puntua. Berbaldiak barriz,

egun bietan, 7an eta 8an, Kultur Gunean izango dira 19:00etan.

Artean be 9an arrastiz eta 10ean goizez eta arrastiz egongo da informazino puntua plazan eta berbaldiak be egun bietan, Kultur Etxean. Areatzan amaituko da lehen bueltea, hilaren 11n goizeko 10:30etik 13:30era egongo dan informazino puntuagaz plazan.

Hilaren 2an osteran, 17:00etan, hondakinen karakterizazinoak kalean egingo da Igorreko Kultur Etxearen aurrean.

Nik be bai 2023

Nik be bai 2023 Argazki eta Bideo Lehiaketan parte hartzeako bialdu daitekez lanak, bagilearen 18ra arte. Parte hartzeako beharrezkoa da Arratiako Udalen Mankomunitateko profila jarraitutea: Facebooken, ArratiaBideanGagoz da eta Instagramen, Arratia Garbia.

BEDIA

Autodefensa feminista ikastaroa egongo da Bedian

Erredakzinoa

Ikastaroak lau saio izango ditu, barikuetan, martiaren 3an hasi eta 24ra arte. Ordu biko saioak izango dira 18:00etatik 20:00etara, Bediako Errekaondo udal lokalean. Ester Lopez Monje izango da formatzailea. Ilgoran Arratiako Andren Jabeluntza Eskolako ikastaroa da. Aldez aurretik izena emon behar da AUMen, udaletxeetan edo 688 627 393 telefonoan.

Autodefensa feminista tailerrak indarkeria matxistak saihesteko tresnak dira. Partaideek indarkeria horreek identifiketan ikasten dabe ikastarootan eta aurre egiteko baliabideak emoten jakiez. Teknika fisiko eta psikologikoak landuten dira eta taldeko andren arteko alkartasuna sendotuten da.

Indarkeria matxistearen aurrean, andrek defendiduteko eskubidea daukiela erakusten da autodefensa feminista ikastaroetan.

LEMOA

Lemoatxako lubakiak berreskuratzeko lanak egiten segiduten dau Udalak

Lemoako Udalak, Aranzadi alkartegaz batera, Lemoatxako lubakietan zementuzko zaku batzuk ipini ditu oihalezko bilgarri berezi bategaz, denporearen poresuz bat egin dagien lubaki lerroaren formeagaz. Teknika hau erabiliko dabe udaro auzolandegietan parte hartzean daben gazteek.



Erredakzinoa

Artearen ikuspuntutik memoria historikoa landuteko be "Oroitzeak dakarren askatasunaz" proiektua martxan dauka Udalak. Zezeilean, epaimahaia batu zan, aurkeztu diran proiektu biak baloretako eta ebatzi bat hartzeako, proiektu horreetako bat herrian gauzatzeko helburuagaz. Hurrengo asteetan emongo dabe hartutako ebatziaren barri. Epaimahaiaren parte izan ziran Lemoako Udala, Guraso Elkartea, Gaztetxea, Jai Batzordea, alderdi politikoetako kideak, EHUKo Arte Ederretako Fakultatea eta Ganzabal Mendi Taldea.

Lemoako Memoria Historikoa berreskuratzen

Hamar urte pasatxo daroaz Lemoako Udalak memoria historikoa berreskuratzeko lanetan eta horretan Lemoatxako lubakiak leku estrategikoa dira. 2012-2013an hasi zan Udala memoria historikoa erreku-peretako lehenengo pausuak emoten eta 2013an, Memoria Historikoaren Herri Batzordea sortu zan. Helburua zan 1936ko gerreak eta gerraosteak udalerrian bizitakoaren memoria kolektiboa eta historikoa berreskuratzea. Eki-men honegaz, besteak beste, auzolandegiak hasi ziran eta udaro, mundu zabaleko gazteak etorten dira Lemoara, Aranzadi Zientzia Elkartearen gidaritzapean, luba-

kiek gordeten daben memoria eskuratzeko.

Lemoatxako lubakiak

1937 urtearen hasieran Mola jeneralaren tropek Bizkaiko kontrola bereganatzeko kanpaina hasi eben. Sasoi haretan Bizkaia zan abertzaleek eta errepublikarrek kontrolpean eukien iparraldeko eremu bakarra eta interes handiko gunea zan, industriak Bilbon eta inguruetan eukan garrantziagaitik. Lemoa inguruak Burdin Hesia babesten eban, eta bere kokapen eta ezaugarri geografikoakaitik, Lemoa gun e strategiko bihurtu zan Burdin Hesiaren defentsan.

Balio estrategiko horren ondorioz, 1937ko maiatzaren 28tik bagilaren 15era alde bien arteko burruka gogorrak izan ziran. Arratiako zenbait gudutan gailendu ostean, Nafarroako armada frankistek, Mola jeneralaren agindupean, Lemoatxara jo eban. Han euskal brigadak egozan zain, Asturiaseko brigadakaz batera, besteak beste. Egun batzuetan zehar, euskal brigadek gun e horren kontrola mantendutea lortu eben baina azkenean, armada frankistek Lemoa kontrolpean hartu eben. Lemoatxa bereganatu ondoren, armada frankistek, Alemaniaren eta Mussoliniren italiar armaden laguntzeagaz, Burdin Hesia eraso eben.

Lemoatxako lubakiak izan ziran lekuko.

ARTEA

Bardintasun Teknikari lanpostua egonkortzeko eskatu dabe feministek

Arteko II. Bardintasun Plana, behin-behineko zirriborroari ekarpenak jasoteko fasean dago eta zezeilaren 15ean, Planaren aurkezpena egin zan.

Erredakzinoa

Herritar guztientzako deialdia zan. Han, Guraso Elkarreak eta Kafrangak Arteko talde feministek euren ekarpenak aurkeztu eutseezan, plana egiten dabizan Daiteke Gizearte Aholkularitzakoei.

Ekarpen honekaz, Emakundera bialdu eta Emakunderen ekarpenak jasoko dira. Ostean, Udalak behin betiko plana onartu behar dau ple-noan eta onartutakoan indarrean jarriko da. Planak 2023-2026, lau urteko indarraldia izango dau.

Plana egin aurretik egoerearen diagnostikoa egin eben, I. Bardintasun Plan zaharretik abiatuta eta herriko talde eta eragileakaz izandako alkarizketen bitartez, eta herritarrengandik jasotako informazioagaz. Aurreko plana aztertuta, planaren betete maila eskasa izan zala azaldu eban Joana Puerto Daitekeok; izan be, %12 bete da eta %9 ia bete. Horretarako egon daitekezan errazoi posibleak be emon ebazan; planaren ezagutza txikia edo ekintzen anbizino maila altua, tarteko. Herritarrek, indargu-neak jakinarazo eutseezan. Horreen artean dago, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea, "sano modu positiboan baloretan dana".

II. Bardintasun Plana

Plana 4 ardatzetan egituratuta dago: gobernu ona, andren ahal-duntzea, antolaketa ekonomiko

eta sozial erantzunkidea eta andren kontrako indarkeriarik bako herria. Ardatz bakoitzean helburu estrategikoak eta helburu operati-boak zehazten dira eta guztira 75 ekintza dagoz, 2023tik 2026ra zein urtetan edo zeintzuetan egitea aurreikusten dan adierazota. Arteko Udalak, 2023ko aurrekontuan, 4.000 euro ditu bardintasunerako.

Puertoren arabera, garrantzi handia dauka planaren betete maila, "paperean ez geratzea". Hori dala-ta, betete mailaren ebaluazio jarraia egingo da. Emaizak eta helburu operatiboan betete maila neurtuko da lantzean behin eta amaieran planaren inpaktua be neurtuko da. "Aurreko planagaz alderatuta Plan barri honetan helburu zein ekintzak proposatuteko orduan ekintza horreek aurrera eroango dituen eragileak udal barrukoak zein herriko eragile zuzenak izan dira. Horrek printzipioz ekintzak aurrera eroatea erraztuko leuke. Ebaluazioak be zati garrantzitsua izango dau planean, epe desbardinetan planaren eraginkortasuna ebaluetan joatea hobetuteko edo mantenduteko mekanismoak detektetan lagundu leike eta" azaldu deutso BEGURI Joana Puertok.

Teknikariaren lanpostua egonkortzearen garrantzia

Arteko Kafrangak talde feministek, beste gauza batzuen artean, AUMko Bardintasun Teknikariaren lanpostua

egonkortzea eskatu eban. Izan be, bardintasun planak aurrera aterateko prozesuak ez eteteko garrantzitsua da lanpostua egonkortzea, jarraitasuna egon daiten. Dana dala, hori ez dala epe motzean aurreikusten, uste dau Daiteke-koak.

Artea eta Arratiako beste herrietan, andra eta gizonen arteko aukera bardintasunerako bidean, Bardintasun Teknikaria mugarria izan da. 2012tik, AUMko Bardintasun Teknikaria, mankomunidadeko herri guztietan bardintasuna sustatzeaz ardurutzen da eta, talde feministakaz alkarlanean, asko izan dira egindako gauzak urteotan: Ilgoran Jabekuntza Eskolea sortu edo indarkeria matxisteari aurre egiteko protokoloak martxan ipini, tartean.

Oin arte, lau Bardintasun Teknikari egon dira lan hau egiten; Miren Urresti, Xabier Pastor, Oihane Zulet eta oin Batirtze Barrero, eta hori larregi da batzuen eretxian, lanak jarraitasan handia behar daualako. Lan konplejua da AUMko Bardintasun Teknikariarena. Aurrera ateraten ditu hainbat proiektu eta programa 8 heritan, 6 ikastetxetan, hainbat kultura eta kirol taldetan, udaletan, AUMen... Eta teknikari aldaketea dagoanean, barriak denporea behar izaten dau horreetan guztietan egiten dabizan proiektu edo prozesuetan egunean ipinteko. Batzuetan, eten egin daitekez prozesuok eta beste batzuetan atzerapausuak be egon daitezke.

ARRATIA

Hamar urte beteko dauzala ospatuko dau Ernaik Lemoan

Erredakzinoa

Hamargarren urteurrena ospatuteko egun osoko egitaraua prestatu dau Ernaik Lemoan, martiaren 4rako. Ospakizuna eta aldarria batuko ditu egunak "Arratian lan eta bizi gura dogulako eta biziteko beste modu bat merezidu dogulako burrukan jarraituko dogu" dinoe.

Eguerdiko 12:00etan egingo jakie harrerea Karabie Gaztetxean bartarututen diranei, eta ordu laurden beranduago, hasiko da *Arratien lan eta bizi gura dogu* izeneko berbaldia, LAB sindikatuko eta Ernaiko ordezkarien eskutik. Bertan, Arratiako lan egoereari

egingo jako errepasoa, besteak beste.

Ondoren, jai giroa izango da nagusi. 15:00etan, Gaztetxean bazkalduko dabe, eta 16:30ean, Otoi taldeak girotuko dau bazkalostea. Bazkarirako txartelak Igorreko Axular Herriko Tabernan edo Lemoako Atxetan erosi daitezke. Arrastian, 18:30ean, eurekaz eroango dabe musikea tabernaz taberna urteurren ospakizunera batutakoek Igorreko tabernetatik, Bizitzeko modu bat "baflepoteoa" deitu daben ekintzeagaz. Egunari amaier ea emoteko DJ Feministrak egongo dira Axular Herriko Tabernan.

Egun osoan zehar, 10 urtez Er-

nai izeneko erakusketea egongo da ikusgai Karabie Gaztetxean.



MARTIAREN 8A

Danon bizitzak erdigunean ipintea aldarrikatuko dabe Arratiako andrek

Martiaren 8ko Arratia mailako manifestazinoa 19:00etan urtengo da Igorreko Kultur Etxearen paretik, Denon bizitzak erdigunean lemapean. Herrietan elkarretaratzeak be egingo dira eta konzienziazzino eta sensibilizazinoa bilatzen daben kultura ekintzek aldarrikapen feministez beteko dabe martia. Izan be, urtero lez, kartel bateratua prestatu dabe Arratiako erakundeek, andra taldeek eta talde feministek, herri bakotxeko ekintzarenategaz. Eta herri batzuetan, beste ekintza batzuek be egingo ditue andren eskubideen inguruan.



Erredakzinoa

Hilaren lehenengo egunetik helduko deusie gaiari Zeanurin eta Zeberion; izan be, Zeanurin, Mazala andra taldeak, emozinoen inguruan egiten dabilan hausnarketari jarraituz, *Irtenbidea aurkitzen duen haserre*a izeneko tailerra egongo da Ainoa Astiazaranen gidaritzapean, 18:00etan, Kultur Etxean. Zeberion barriz, martiaren 1etik 10era arte, *Bertokoak, mujeres de aquí* izeneko erakusketa ibiltaria egongo da ikusgai Ermitabarriko San Antonion. Erakusketea Zabalketa GGKEk koordinatu dau Eusko Jaurilaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzeagaz. Euskal udalerrietako kultura ugaritasuna islatu gura dau eta hainbat iruditan erakus-

ten ditue edade eta belaunaldi desbardinatetako andrak, beste leku batzuetatik etorri diranak, eta ez dabenak erraza izan aurrea egitea. Hurrengo egunean, Igorre eta Areatzako bardintasun planak egiteko prozesuetako aurkezpeneak egongo dira. Igorren, andra eta gizonen bardintasun egoerearen diagnostikoaren aurkezpene egingo da 18:00etan, Kultur Etxean. Areatzan barriz, Areatzako Emakume eta Gizonen Bardintasunerako III. Plana aurkeztuko da 19:30ean, udaletxeko areto nagusian. Martiaren 3an, barikua, hasiko da Bedian, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatutako *Autodefensa feminista* tailerreko lehenengo saioa Ester Lopez Monjeren eskutik Errekaondo udal lokalean.

Tailerrak lau saio izango ditu martiko barikuetan, hilak 3, 10, 17 eta 24, hain zuzen be; 18:00etatik 20:00etara. Partaideek indarkeria matxista desbardinak identifiketan ikasiko dabe eta aurre egiteko baliabideak emongo jakiez. Egun horretan, Igorreko Kultur Etxean, 19:00etan, *Sex Toy: parrainen matxinada* ikuskizuna ikusi ahal izango da Lasarte Aretan. Towanda Rebels aktibista feministen Purple Trama ekoizpenetxeak dakar lan hau, andrekgaurko gizarteetan bizi dabezan egoerak bistarazo eta salatuten dauana. Objektu estetiko eta sexual hutsa dan andrearen idea da lanaren ardatz nagusia, baina beste gai batzuk be landuten ditu: bortxaketaren kultura, pornografia, prostituzinoa eta andren sozializazinoa, berbarako. Hurrengo egunean, hilak 4, 12:00etan, barriro be Towanda Rebels bikotea izango da, baina oingoan, *Emakumeen gorputzak merkantilizatzea* berbalidia egingo dabe Igorreko liburutegian eta ostein mahai-ingurua. Euren *Hola Guerrera* liburua be sinatuko dabe. Domekan, hilak 5, zinean, 19:30eko saioan, *Ainarak* pelikulea egongo da. Dokumental honek, Pirinioak oinez zeharkatuta Maulera (Zuberoa) espartingintzan lan egiteko joaten ziran andren historia kontetan dau. Juan San Martin eta Ritxi Lizartzak zuzendutako film honetako gidoia Marga Gutierrezena da eta musikea Anne Etchegoyenena. **Andren nazinoarteko eguna, herrian edo kanpoan** Bediak herriko andrentzako ekintzak prestatu ditu andren nazinoarteko egunerako. Arrastiko 17:30ean, herriko andren omenez, poesia xuxurlatu tailerra egongo da liburutegian eta os-

MARTXOAK 8 MARZO

DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN, GORA BORROKA FEMINISTA!

MARTXOAK 1 Marro IRTENBIDEA AURKITZEN DUEN HASERREA Ainoa Astiazaran 18:00-20:00 ZEANUR - Kultur etxean	MARTXOAK 2 Marro BERDINTASUN PLANAREN AURKEZPENA 19:30 AREATZA - Udaletxean
MARTXOAK 3 Marro AUTODEFENSA FEMINISTA - Rastano Ester Lopez Monje (Sala eskola) 18:00 - 20:00 BEDIA - Eskola zaharrean SEX TOY - Towanda Rebels Areatzara 19:00 IGORRE - Kultur etxean	MARTXOAK 8 Marro 17:00 PASKEAN APAINKETEA 18:00k aurrera - KONZENTRAZINOA - MUSIKA ESKOLAKO UME ETA FAMILIEN EKINTZAK KANTA - FESTUAREN IRAKURKETA DIMA
MARTXOAK 10 Marro LUZE EDO MOTZ - Antzezana Mireia Martiarena eta Idoia Torregeraik 19:00 ARTEA - Kultur etxean EZ DA KASUALITATEA - Berroko musikariek Olanza Zibetta, Ane Ota, Ane Aramendi 19:00 DIMA - Eskolako garbaitan	MANIFESTAZIOA MARTXOAK 8 / 19:00 IGORREKO KULTUR ETXETIK
MARTXOAK 17 Marro JUSTIZIA ETA FEMINISMOA - Hitzaldia Begonia Zabalketa 19:00 ARANTZAZU - Kultur etxean	MARTXOAK 11 Marro TRAPU ZIKINAK - Antzezana Lore More Astariki talde 20:00 IGORRE - Kultur etxean
MARTXOAK 22 Marro EXIGENTZIA ALA EXZELENTZIA - Tailerra Ainoa Astiazaran 18:00-20:00 ZEANUR - Kultur etxean	MARTXOAK 18 Marro MERI, MARI ETA LARI - Umortze antzezana Marta Urcelay eta Togorriha Borroa 12:30 LEMOA - Koroekin Kultur etxean
Martxoan, Lemoako kiroledegia emakumeentzako eskaintza berria eta debalde opatsko da. En marzo el polideportivo de Lemoa ofrecerá una oferta especial y gratuita para las mujeres.	MARTXOAK 26 Marro MACMA MIAT - Bakarriketa Borrix Egozabal 19:00 ARANTZAZU - Kultur etxean

tean, zapata eta ponpoi moreak ipiniko ditue plazan eta argazkia aterako dabe. Diman be apainduko dabe parkea eta Musika Eskolako ume eta familie, Uxue Alberdik idatzitako eta himno bihurtu dan *Konplize ditut* kantauko dabe Igorreko manifestazinoa joan aurretik. Igorreko manifestazinoa 19:00etan urtengo da Kultur Etxe paretik. Zeberioako Bilbora joango dira manifestazinoa. Horretarako 18:00etan hartuko dabe autobusa plazan. Herrian jai giroan ospatuko dabe, herriko nesken eskupelota partidukaz eta kopauagaz. **Kultura ekintzak hilean zehar** Andren eskubideen aldeko kultur ekintzek hile osoan zehar jarraituko dabe. Hilaren 10ean, barikuan, berbarako, Artean, Bedian eta Diman dagoz ikuskizun edo tailerrak. Artean, Idoia Torregeraik eta Mirari Martiarenak *Luze edo motz* binakako bakarriketea ekariko dabe 19:00etan, Arteako Kultur Etxera. Umerezko ikuskizun honetan generoa hartuko



dau berbagai bikoteak, gure gizartea zetan geratzen dan luze eta zetan motz galdetuteko.

Diman, bertso-saioa egongo da; *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatua 19:00etan, eskolako kamaran. Bertso saio honeetan hiru bertsolariak eta gai-jartzailea andrazkoak izaten

dira eta ikuspuntu feministatik sortutako bertsoak entzun daitez bertan. Idoia Anzorandia gai-emoile, Josune Aramendi, Onintza Enbeita eta Jone Uria, izango dira saio horretako bertsolariak. Gari Otamendik eta Ixak Arrutik ipiniko dabe musikea.

Bedian, autodefensa feminista



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO
SAREAN HARRAPAU?
GERO ETA GEHIAGO GARA!

1.081 JARRAITZAILE

349 JARRAITZAILE

2.357 LAGUN








649 979 115

g

inigoirua@begitu.eus

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**



Kili~Kili
Amopu eta Puzakulturan

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 42 81

belagorri

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakoentzat elkagaiak
estetiziana

Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igarre
94 631 14 39

**ASESORIA
Gorbeialde**

Juridikoa - Fiskala - Landua - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Olaxte
OPTICA OPTICA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Olaxte dago jabetza

- Solmenton zein alokairuan
- Lurrak (erakileta, landak, basak...)
- Etebiziak (jauak, baserriak, etxak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

Bider dago proiektuak

- Erakile berrak erakitzeko
- Erakileak
- ARKITEKTURA-proiektuak
- Barru diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza ohikuaritza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Lehendakari Agirre 25, 48140 Igarre
Tfnoa: 94 631 31 81 - 436 94 31 31
E-posta: arratia@arratia.com
arratia@arratia.com

ARRATIAGARBI

**HONDAKINEN
KARAKTERIZAZIOA KALEAN**

IGORREKO KULTUR ETXEAREN AURREAN

martxoak 2 17:00etan

Harrituko zara edukiontzi
grisera botatzen dugunagaz




**ARRATIAGO VDALEN
MANKOMUNITATEA**

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ARATUSTEAK ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERION

Arratia, Ubide eta Zeberioko Aratusteetako argazkiak

Udako jaiak bezain jentetsuak izan ez arren, gehiago edo gitxiago, modu tradizionalen edo ostekoan, Arratian, Ubiden eta Zeberion, umorez eta lagunen artean ospatuten dira Aratusteak. Sormena protagonista, personaia eta mundu desbardinek hartu ebezan kaleak. Argazkiak lekuko.

Jai giro berezia izan zan mozerro eta disfrazek sortutakoa, eta eguraldiak be lagundu egin eban jaia kaleetan ospatu ahal izateko.



Areatza.



Ubide.



Arantzazu.



Artea.



Artea.



Lemoa.



Arantzazu.



Areatza.



Artea.



Bedia.



Bedia.



Bedia.



Zeberio.



Dima.



Dima.



Ubide.



Lemoa.



Igorreko aratusteetan talderik onenaren saria irabazitakoak bonuagaz eskuetan.



Igorre.



Dima.



Artea.



Igorre.



Igorre.



Zeanuri.



**MARTXOAK 8a aldarrikatuz,
egunez egun
berdintasuna landuz**



Bediako Udala



**GORA
EMAKUMEON
BORROKA!**



**ZEANURI
ZEANURIKO UDALA**



MARTXOAK 8 | NAZIOARTEKO EMAKUMEEN EGUNA

**DENON BIZITZAK
ERDIGUNEAN**



**IGORREKO
UDALA**



#GEROAMOREADA

1. Gure geroa MOREA nahi dugu, ez dago zalantzarik.
2. MORE hasi eta hezi nahi ditugu gureak eta mundua.
3. Errespetua, maitasuna eta elkarlana MOREAK dira.
4. MOREA ez da egun bat, morea bizitzan izateko modu bat da.
5. MOREA maitasuna oinarri duen iraultza feminista da.
6. Forma eta izen asko ditu kolore honek eta denak MOREAK dira.



M8-ARTEA



Martiak 17, barikua
19:00etan, Begoña Zabala
berbaldia *Justizia eta Feminis-
moa* Kultur Gunean.

Martiak 26, domekea
19:00etan, Bea Egizabalen
Magma mia umorezko baka-
rrietzeta Kultur Gunean.



MARTXOAK 8
GORA
EMAKUMEEN
BORROKA!



Arantzazuko Udala

begitu
eus



MARTXOAK 8
GORA
EMAKUMEEN
BORROKA!



Ubideko Udala

MARTXOAK 8, ANDREN NAZINOARTEKO EGUNA

**Bardintasunaren aldeko
konpromisoa indartzen**



Dimako Udala



Martxoak 8
GORA
EMAKUMEON
BORROKA!



LASTO BOTATZEA

Euskal Herriko Lasto Botatze hamabosgarren txapela jantzi dau Tubik

Erraz irabazi eban zezeilaren 19an Mungiako Jose Antonio Agirre kiroldegian jokaturako Euskal Herriko Lasto Botatze Txapelketea, Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrek.

Erredakzinoa

Bigarrenak baino metro bat eta 30 cm altuago bota eban Tubik hamabi kiloko fardoa. Juan Carlos Lopezek egin eban bigarren eta Mikel Agirrek hirugarren Lopezen marka beragaz. Eloi Salterain izan zan txapelketan parte hartu eban laugarren kirolaria.

Tubik oin arteko Euskal Herriko Lasto Botatze txapel guztiak irabazi ditu; hamabost, hain zuzen be. Aurten txapelketan, gero markeak erakutsi eban moduan, oso ondo ikusi ebala bere burua dino txapeldunak, eta "bota

neban neurria aspaldiko partez onena".



ERRUGBIA

47-5 galdu eben zekorrek Iruñean

Erredakzinoa

Zezeilaren 25ean Ohorezko B Mailako lider sendoa dan Iruña Rugby Clubaren kontra lehiatu zan Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek eta 47-5 amaitu zan partidua, iruindarren alde. "Egia da lo urten ginala baina arpegia emon behar izan genduanean emon genduan", azaldu dau Eder Martinez entrenatzaileak. Holan, laugarren postutik bosgarrenera bajatu dira etxeok.

Izan be, hasikerako hogei minutuak arratiarren partetik txarrak izan zirala azaldu dau Martinezek,

hiru entsegu eta hiru eraldaketa jaso ebezan. Lehen zatiaren atzen minutuak eta bigarren zatiaren lehen minutuetan barriz, zekorrek izartu eta iruindarrak ezin bere jokoa egin ibili ziran. Orduan ailegau zan arratiarren entsegu bakarra, Zumel Iturrateren eskutik. Baina atzen minutuetan, "partidua Iruñeakoen alde apurtu zan".

Oin, laugarrena dan Nerbioi taldea puntu bira daukie eta martiaren 4an izango dabe puntuak berreskuratzeko aukerea. Izan be, atzena dan La Unica taldea hartuko dabe San Txismen, arrastiko 16:30ean.

FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia A lider indartsua da

Gizonezkoen Arratia A eta B taldeek zezeileko atzen astegoienean etxean jokaturako euren partidua erraz irabazi ebezan. Andrazkoen A taldeak deskantsua izan eban jardunaldi horretan eta B taldeak irabazi egin eban etxean. Lemoako Harrobik ostera husna bardindu eban Umore Ona A Usansoloko taldearen kontra Arlonagusian.

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia A
Zezeileko atzen zapatuan jokatu eban Arratiak hirugarren postuan egoan Lekeitio taldearen kontra Urbietan eta 4-1eko emaitza argiagaz irabazi eban. Aurreko jardunaldian bina bardindu eban etxetik kanpo Gordexolaren kontra. 22 jardunaldiren ostean sendo dago Arratia lidertzan 48 puntugaz eta bigarrenari zazpi puntu ateraten deusaz. Hurrengo partidua martiaren 4an jokatuko dau etxetik kanpo San Ignacio A taldearen kontra, arrastiko 18:30ean.

Andrazkoen Arratia A
Deskantsua izan eban andrazkoen A taldeak zezeileko atzen astegoienean. Aurreko partiduan, zezeilaren 18an Santandergo Monte taldearen kontra Urbietan jokatutakoan, kanpotarrek sartutako gol batek erabaki eban partidua. Halanda be Arratiak markagailura igon ez zan gola egin eban, baloia area txikian egondako jokaldi endredau batean argi sartu zan aurkariaren atean, baina arbitroak ez eban gola ontzat emon. 20 jardunaldiren ostean Arratia A hamaikagarren postuan dago 19 puntugaz. Datorren partidua Santanderren jokatuko dau Racing B taldearen kontra hilaren 4an, arrastiko 16:00etan.

Gizonezkoen Arratia B
B taldeak be zezeileko atzen zapatuan jokatu eban etxean



Andrazkoen Arratia B eta Plentziaren arteko partidua.

Ibarsusi taldearen kontra eta 3-0 irabazi eban Arratiak. Aurreko partidua be irabazi eban etxetik kanpo Montefuerte A taldearen kontra 1-2. 22 jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago gizonezkoen B taldea 32 puntugaz. Datorren partidua Usansolon jokatuko dau Umore Ona A taldearen kontra, hilaren 4an, arrastiko 16:00etan.

Andrazkoen Arratia B
Zezeileko atzen domekan jokatu eban andrazkoen B taldeak Urbietan Plentzia taldearen kontra eta 4-1 irabazi eban partidua. Aurreko astean ostera emaitza bardinagaz galdu eban Bilbao Artizarrak taldearen kontra etxetik kanpo. 20 jardunaldiren ostean

seigarren postuan dago Arratia B 30 puntugaz. Datorren partidua hilaren 5ean jokatuko dau Pauldarrak B taldearen kontra etxetik kanpo, eguerdiko 12:30ean.

Lemoako Harrobi
Zezeileko atzen zapatuan jokatu eban Lemoako Harrobik Usansoloko Umore Ona A taldearen kontra Arlonagusian eta husna bardindu eban. Aurreko jardunaldiko partidua ostera 1-0 galdu eban Ibarsusi taldearen kontra etxetik kanpo. 22 jardunaldiren ostean zazpigarren postuan dago Lemoako taldea 35 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Atxulaur A Orozkoko taldearen kontra hilaren 4an, arrastiko 16:45ean.



MENDIA

Domusa Teknik Team euskal talde jaio barrira batu da Onditz Iturbe

Puntako bederatzi euskal mendi lasterkari dira taldean eta helburuen artean, #taupadaurdina ekimenaren bitartez mendi lasterketen zaletasuna bultzatzea dago.

Erredakzioa

Zezeilaren 15ean aurkeztu eban Errezilen (Gipuzkoa) Mondragon korporazioaren parte dan Domusa Teknik enpresek bere proiektu barria: Domusa Teknik Team. Proiektu "motibagarri beste polita" Onditz Iturberen esanetan. Berogailuentzako produktuak fabriketan dauzan enpresek trail munduan egin dau apustua, mundu mailan lehiatuko dan euskal herritarrez osotutako taldea sortuta. Euskal Herriko talde erreferentea izan gura dabe eta gainera, gazteentzako entrenamendu irekiak antolatuko ditue. Puntapuntako bederatzi lasterkari hasi dabe ibilbidea, euren

artean dago Onditz Iturbe igorretarra: "Anbizino handikoa dan heinean, bildur apur bat emoten dau; ez da erraza izango baina burukatuten saiatuko gara". Beragaz batera egongo dira burruka horretan Ibai Angulo azpeitiarra, Borja Zubizarreta azkoitiarra, Aritz Egea urretxuarra, Goar Lopetegi ibartarra, Ainara Urrutia aretxabaltarra, Aitor Ajuria leintz-gatzagarra, Irati Azkargorta iturmenditarra eta Alvaro Ramos iruindarra. Txirrindularitzan Euskaltelek laranja koloreagaz egin eban modura, Domusa Teknik Teamek urdinez bete gura ditu mendi lasterketak. "Euskal Herrian sortua baina mundu zabalean urdina zabaltzeko asmoa", azaldu dau

Iturbek. Euskal zalegoaren indarra trail mundura erakartea da helburua eta urdinagaz, talde izakerea bultzatzea. Jentea animetako, sare sozialetan eta lasterketetan hainbat ekimen, erronka eta deialdi egingo ditue. Bertikalen Espainiako Txapelketea zezeilean Zezeilaren 18an Murtzian jokatu zan sei kilometroko OXOX Bertikalean Espainiako Txapelketea eta Onditz Iturbe bigarren izan zan. 24 segundoko aldeagaz irabazi eban Nuria Gil kataluniarrak eta beraz, atzen honek irabazi dau Austrian jokatu dan Munduko Txapelketarako txartela. Hogei kilometroko Chinte Challenge Traila



Onditz Iturbe.

MENDIA

Seirehun kirolari inguruk emon dabe izena Bedian izango diran Kolazino Mendi Eguneko probetarako

Kolazino Mendi Eguneko 7. edizinoko izen-emoteak aurreikusten dau martiaren 18an jente asko batuko dala Bedian.

Erredakzioa

Lasterketa luzean, 24 kilometrokoan, 340 mendi lasterkari emon dabe izena; 16 kilometrokoan, 150 kirolarik eta mendi martxea egiteko 100 bat lagunek emon dabe izena daborduko. Izen-emotea baina oindino zabalik dago. Lasterketea Euskal Mendizale

Federazioko Koparako puntuagarria izateak, Euskal Herriko lasterkaririk onenak erakarri dituala dinoe antolatzaileek. Andrazkoe-tan, beste batzuen artean, Onditz Iturbek eta Oihana Azkorbebeitiak emon dabe izena. Gizonezkoetan be, maila sano altua da eta aurreko urteetako irabazle gehienak egongo dira: Asier Larruzea, Beñat Katarain, Oier Ariznabarreta,

David Garcia eta Imanol Goñi, tartean. Bazkaria Aurten, barriro, parte-hartzaile guztientzako bazkaria egongo da herriko frontoian. Aurreko urteetan, COVID-19a zala-ta, hartutako neurri murriztaileak beteteko, "alde batera itxi behar izan ziran gauza asko, eta horreen artean



Martiaren 18ko kartela.

frontoian egiten genduan bazkaria daukagu, aurtengoan parte-hartzaile guztientzako bazkaria egongo da barriro" dinoe anto-

laktuntzatik. "Urtero moduan jente piloa batuko jaku Bediako plazan eta beteta egongo da barriro be gure Mandoia" azaldu dabe.

Gure ikastetxeak
Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Uaur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza

Datxilergoan

Hezwuntza Zinloan

2 urteko 13ra

ANTZEZLANA

Lore More antzerki konpainiak intimidadearen gaineko hausnarketea proposatzen dau *Trapu zikinak* lanagaz

Martiaren 11n izango da Igorreko Kultur Etxean, 20:00etan. Sarrerea debalde da.

Erredakzinoa

Lore More konpainia nafarrak "Trapu zikinak etxean garbitzen dira" esakereari bueltea emoten deutso eta antzezan honetan intimidadearen ideari begi barriakaz begiratzen deutso. Garbilekuetan inspirauta dago eta 1936ko gerraostean girotuta. Andra talde baten, erropea garbitu bitarteko barriketaldia dakar antzezanak.

Gerrak itxitako pobrezia, adiskidetasuna, patroiairen bidebakokeria, maitasuna, lana eta etorkizuneko desirak kontetan dabez erropak garbituten dagozan andrek. Antzerki taldetik hainbat egoera aurkezten dabez: "Zelan garbitzen dira lotsak itxitako orbanak? Eta indarkeriarenak? Zeri esaten deusagu "zikin"? Zertaz egin daiteke berba? Ze berbakaz?".



POESIA

Poesia eta musika saioa eskainiko dau Poesia Hegalaria taldeak Igorreko Gau Loran

Erredakzinoa

Martiaren 11n, 19:30ean izango da saioa. Poesia hegalaria taldeko Pablo Cabañas, Ana Juez, Sonia L. Astondoa eta Irune Elexpek irakurriko dabe poema sorta bat, Amets Bilbao eta Irune Elexperen musikeak lagunduta. Idoia Carramiñana poetea be egongo da bertan eta gura dauanak berak sortutako edo beste egile batzuen gustuko dituan poemak irakurteko aukerea izango dau. Gainerako literatuta generoen aldean, poesiari garrantzia gitxi emoten jakola eretxita, sortu zan Igorren Poesia Hegalaria taldea. "Gure inguruan holango proiektu bat egiten dan lehen aldia da eta horregaitik ahalegin berezia egiten da giro erakargarria eta

inguratzailea sortzeako, material personalak eta sormena erabiliz. Holan interes eta ilusinoz, jarduera interesgarriak egin daitezkeza erakutsi da" azaldu deutso BEGITURI Irune Elexpe taldeko kideak. Topaketa poetiko bakotxean mikrofonoa gura dauanaren esku ipinten dabe, norberaren edo beste egile batzuen poesia errezitetako, "plataforma bat izan gura dogu poesiara hurreratu gura diranentzat" dino Elexpek. Gau Lorako saioan, "Idoia Carramiñana izango dogu gure artean; baita goi mailako beste poeta eta rapsoda batzuk be". Amets Bilbao eta Irune Elexpez gainera, beste musikari batzuk konbidauta dagoz parte hartu dagien.

BERBALDIA

Andren gorputzen merkantilizazioaren gaineko berbaldia egongo da Igorren

Martiaren 4an, goizeko 12:00etan, Zua Mendez eta Teresa Lozano Towanda Rebels-ek *Emakumeen gorputzak merkantilizatzea* izeneko berbaldia egingo dabe Igorreko liburutegian.

Erredakzinoa

Ostean, *Hola Guerrera* liburua sinatuko dabe. Prostituzinoa, pornografia eta haurdunaldi subrogaduak dira tratauko dituen gaietako batzuk. Nagusi dan sexualidade eredu, aukera askearen mitoa, norbere burua gauza bihurtzea eta genero politikea zalantzan jarriz industria horreek gizartean eta andren bizitzetan dituen kausetan eta eraginean sakonduko dabe Towanda Rebels aktibistak, arreta biktimarioengan ipinita.

Towanda Rebels

Teresa Lozano eta Zua Mendez dira Towanda Rebels kanal feministearen sortzaileak. Eurek sortutako *Hola putero* bideoa *trending topic* izan zan. Bertan, bardintasun erreala guzurre dala eta kurikulum akademikoan Teoria Kritika Feministatik ez egotea salatuten dabe besteak beste. "Hola putero" eta "Yo te creo" kanpainen ostean, *Hola Guerrera* idatzi eben. "Aspertuta zagoz ikusezina izateaz? Lanean, kalean eta eguneroko bizitzan gitxietsia sentiduten zara? Amorrua emoten deusgu egunero entzutea andrek etenbarik sufriduten dabezan



gehiegikeriak? Zure erantzuna baiezkoa bada, gura dogu, jakin dagizula ez zarala zoratu, ez dozula exageretan, ez zarala histeriko

bat: guztiok zapaltzen gaitue testosteroneak gobernautako mundu baten andra jaio izanagaitik" dinoe liburuaren sinopsian.

DANERIK

Udari begirako izen-emoteak zabalduko dira Bedian

Erredakzinoa

Haur Hezkuntzan dagozan umeek Txiki-txokorako; Lehen Hezkuntzakoek, udalekueatarako; 3 eta 12 urte bitartekoek, Udako Ludotekarako; eta 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek Bedia Uda Gaztean emon leikie izena martiaren 6tik 24ra, 16:30etik 19:30era, liburutegian. Ordainketea zati bitan egin daiteke, baina behin izena emoteko epea amaituta, baja emon ezkerro ez dala dirurik bueltauko jakinarazo dau Udalak. Txiki-txoko eta udalekuak, bagilearen 26tik garagarriaren 7ra izango dira. Txiki-txokoaren ordutegia 09:30etik 13:30era izango da eta prezioa, 110 euro Bedian

errolatuentzat eta 220 Bedian errolatuta ez dagozanentzat. Txiki-txokoa hasi orduko umeek hiru urte beteta euki behar dabez eta autonomoak izan behar dira komunera joateko fardel barik. Udalekuetan, osterak, jolasak, olimpiadak eta tailerrak besteak beste egingo ditue Lehen Hezkuntzakoek. Ordutegia, 09:30etik 17:30era izango da jantokiagaz, eta prezioa 200 euro Bedian errolatuentzat eta 400 euro ez errolatuentzat. Lehenengo mailan dagozanek, nahiz eta Udalekuetan plaza euki, aukerea eukiko dabe Txiki-txokoan apuntetako; beti be, plazak libre geratzen badira Txiki-txokoan, eta kontuan izanda Haur Hezkuntzakoek daukiela lehentasuna.

Bedia Uda Gaztea egitasmoa, garagarriaren 8tik 15era egingo da Iparraldean; kirol eta kultur ekintzak egingo dabez gazteek han. Lehenengo DBHn dagozanek, nahiz eta Uda Gaztean plaza euki, aukerea eukiko dabe Udalekuetan apuntetako, beti be plazak libre geratzen badira eta kontuan hartuta 6. mailan dagozanek lehentasuna daukiela. Prezioa 350 eurokoa da Bedian errolatuentzat eta 700 euro Bedian errolatuta ez dagozanentzat. Udako Ludotekea "Ludosport", garagarriaren 10etik 21era izango da Bedian errolatutako umeentzat eta 10:30etik 13:30era arteko ordutegia izango dau. Talde bi egingo dira. Bata, 3 eta 6 urte bitarteko umeek osotuko dabe eta ingelesa eta adimen emozionala landuko dabe. Bestean, 7 eta 12 urte bitartekoek, robotika eta adimen emozionala landuko dabe. Aukerea egongo da asteen edo hamabostaldian apuntetako eta prezioa 30 euro dira aste bakotzeko.

IKUSKIZUNA

Antzezlanak eta mahai-
ingurua *Sex Toy: panpinen
matxinada* ikuskizunean

Igorreko Lasarte Aretoan izango da
martiaren 3an, 19:00etan.

Erredakzinoa

Ikuspegi feministatik andrek ida-
tzitako, zuzendutako, ekoiztako
eta interpretatutako lana da.
Towanda Rebels aktibista femi-
nisten Purple Trama ekoizpen-
etxeak dakarren lanak euren
bokazino politikoa eta artistikoa
batzean ditu. Taulan, Isadora
Söderström, keinuen eta *per-
formanceen* antzerkian espezia-
lizatutako aktorea; Alice Pertuz,
abeslaria, aktorea eta jantzaria
eta Margarita Hardessen, aktore
txiletarra egongo dira. Eurekaz
batera Towanda Rebels, Zua
Méndez eta Teresa Lozano akto-

re eta komunikatzaileak. Ikuskizu-
naren zuzendaria Áurea Martínez
Fresno da.
Antzezlanak, andrek gaur
egungo gizarteetan bizi daberen
egoera bistaratzea eta salatzea
bilatzen dau. Objektu estetiko eta
sexual hutsa dan andreaken idea
da ardatz nagusia, baina bes-
te gai batzuk be landuten ditu:
bortxaketaren kultura, porno-
grafia, prostituzinoa eta andren
sozializazioa, adibidez.
Ikusleek parte hartzeako, antzer-
ki lanak publikoagazko topaketea
be badakar eta bertan, aktoreek
sorkuntza prozesuan izandako es-
perientzia partekatuko dabe.



IKASTAROA

Emozinoak
landuteko
ikastaroa
antolatu
dau Mazalak
Zeanurin

Erredakzinoa

Mazala andra taldeak, zaintza emo-
zionalaren gaineko ikastaro bat an-
tolatu dau. Saio bi izango ditu, lehe-
nengoa, martiaren 1ean izango da,
Irtenbidea aurkitzen duen haserrea
izenpean eta bigarrena, martia-
ren 22an, *Exijentzia ala eszelentzia*
izenekoa. Saio biak 18:00etatik
20:00etara izango dira Zeanuriko
Kultur Etxean Ainoa Astiazaranen
eskutik.
Hau da gaiaren gainean Maza-
lak antolatuten dauan laugarren
ikastaroa. Aurrekoak, *Minak hitz
egiten digunean*, *Gure biografiaz
deskubritzen* eta *Gure genealogiaz
ahalduntzen* izan ziran.
Hazkunde eta zaintza emozionala
ikastaroan, adimen emozionalaren
lanketeagaz, zaintza eta ahalduntze
emozionala landuko dira. Horreta-
rako partaideek euren emozinoen
inguruko esperientziak parteka-
tuko ditue, pandemiaren bizipenek
sortu eta areagotu dituen ondorio
emozionaletatik abiatuta.
Ainoa Astiazaran Bilbao, psikolo-
goa eta terapeutea da eta hazkunde
emozionala eta biografiaz tailerrak
emoten ditu Bagabiltza alkarteagaz.

MUSIKEA


Unidad Alavesa eta Harria
taldeen kontzertuak
Igorreko Kiñu Gaztetxean

Martiaren 11n, Unidad Alavesa, Ataungo
folk-rock taldearen eta Harria rock talde
bergararraren musikea entzuteko aukerea
egongo da Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Erredakzinoa

Ateak 21:30ean zabalduko dira.
Txartelak, takillan bertan edo,
martiaren 9ra arte Igorreko He-
rriko Tabernan erosi daitezke.
Unidad Alavesa taldea 2016an
sortu zan baina taldekideak espe-
rientzia handiko musikariak dira
beste talde batzuetatik be pasau
diranak: Benito Lertxundi, Ancha
es Castilla, Fiachras, Brigada Cri-
minal, Los Rockinson, Bizardunak,
Stanislaw eta Los Zopilotes Txir-
riaos taldeetatik, hain zuzen be.
Euskeraz eta gaztelaniaz kantetan
dabe eta disko bi ditue kolean,
Unidad alavesa (2017) eta *Mar-
tin Martin* (2019). Haritz Artolak
(ahotsa eta gitarra), Iker Artzak
(bajua), Gurutz Bikuñak (gitarra),
Eneko Dorronsorok (trikia eta
banjoa) eta Unai Munduatek (ba-
teria) osotuten dabe taldea.
Bergarako Harria taldea igaz sor-
tu zan baina taldekideak beste for-

mazino batzuetatik datoz. Izan be,
Brigada Criminal, Fiachras, Bizar-
dunak, Bidelapurak eta Belceblues
taldeetan parte hartu izan dabe. CD
bat kaleratu dabe *Harria* izenekoa
eta Aitor Aldanondo (ahotsa eta
gitarra), Ekaitz Aranberri (gitarra),
Maitane Azkarate (ahotsa) eta Gui-
lle Sanz (bateria) dira taldekideak.



DUNBA

Zulaibar Ikastegitik
ekintzailatzeari bultzadea

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegitik gure bailaran
enplegu sorrereari bultzada bat emon gura deutsagu.

Xabi Zabala. Urratsbat
dinamizatzailea Zulaibarren

Horretarako, Campus Zulaibar ba-
rrian ikasleen eta ikasle-ohien, en-
presen, ikastetxearen eta ekintzai-
leen arteko topaguneak sortu dira.
Asmoa Arratian ekintzailatzeari
bultzada bat emotea da, momen-
tuko eta etorkizuneko beharrian
sozioekonomikoei aurre egin ahal
izateko, garapena eta jasangarritas-
una aintzat harturik.
Asmo horrerik erantzuteko Zula-
ibar barritik enpresa sortzeako idea
guztiei lehenengo aholkularitza
bat emoten deutsagu Urratsbat

programearen eskutik. Urratsbat
enpresak sortuten lagunduteko
programea da, erdi-goiz mailako
Lanbide Heziketako ikastetxeetako
bigarren mailako ikasleei, ikaste-
txeko ikasle ohiei eta ikastetxean
prestakuntza ez-arautuaren edo
ez-presentzialaren bidez zerikusia
daukan edozein personari zuzen-
dutakoa. Hori ahalbidetzeko, Zu-
laibardik alkarlanean gabilz bertan
bere egoitza kokatua daukan Errota
Arratiako Garapen Sozioekono-
mikorako Fundazioagaz.
**Ekintzailatzara bideraturiko
sensibilizazio lana:**
2022-2023 ikasturte honetan,

hainbat enpresatara egindako ur-
tekere gain, Zulaibarrek eta Errota
fundazioak ekintzailatzara astea an-
tolatu genduan alkarregaz. Zemen-
diko aste horretan jardunaldiak
antolatu genduzan eta bailaratik
zein kanpotik etorritako zenbait
ekintzaile bildu genduzan gurean.
Konbidaduek berbaldiak emon
ebezan eta Formakuntza Ziklo des-
bardinatuko ikasleek aukerea izan
eben euren ekintzailatzara esperien-
tziak hurretik ezetuteko.
**Instalazioa eta ekipamentu
espezifikoak:**



Ikasturte honetako barrikuntzetako
bat da Campus barrian ekintzailatzara
ekosistemea ahalbidetzen dauan
coworking eremu bat izatea, Errota
Fundazioaren egoitzaren ondoan,
ekintzailatzara proiektuaren bat au-
rrera atera gura dauanak erabili
dagian. Horrez gain, ekintzaileak
ekipamentu teknologikoa erabilte-
ko aukerea be izango dau.
**Etorkizunera begira finkatu-
riko helburu estrategikoak:**
Ikastegiko Ekintzailatzara Lantaldetik
hurrengo helburu estrategikoak
finkatu doguz:

- Ekintzaileen garapena sustatzen daben inguruneak bultzatzea eta denporan iraun leikien enpresek eskatutako zerbitzuak identifikatea.
- Langabeen kolektiboakaz dinamika garatzea, beti be, ikastetxearen gaitasunetan oinarrituta.
- Eskualdeko ekintzailatzara ekime-
nei garapenerako aukerak emotea, horretarako espazio eta azpie-
giturakaz sendotzen laguntzea.
- Enbrioi fasean dagozan eskual-
deko enpresa ekimenak Zulaibar
barriko instalazioetan hartzea, lehenago aitatutako *coworking*
eremuan, hain zuzen be, enpre-
sea eratu arte.
- Ikasleen artean ekintzailatzara
kultura sustatzea, sensibilizazio
lanari ekinaz.



AGENDEA

MARTIAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Negu osoan, baimendutako aparlekuetatik kanpo ez aparketako Gorbeia Parke Naturalaren konzienziazino kanpainea, bide bazterrak, zelaiak eta basoak babestuteko helburuagaz.

Guraso Elkarteak maiatzaren 26an egingo dauan Merkatu Txikian saltzeako objektuak (liburuak, jostailuak, umeentzako gauzak...) bilduko dauz. Eskolako tejobanako txokoan itxi daitezke 09:30etik 09:45era.

ARRATIA

Etixerat alkarteak antolatuta, alkartasun bazkaria martiaren 4an etxera eroateko. Menua: babak, sakramentuak eta postrea (15 euro). Eskaerea egiteko atzen eguna hilaren 2a. Eskaerea, hurrengo telefonoetan egin daiteke: Lemoa, 696 802 763; Igorre, 699 919 085; Artea 600 389 055; Dima, 656 778 166; Zeanuri, 620 253 725 eta Areatza 655 723 506.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

16:30etik 19:30era, hilaren 10era arte, apirilaren 1ean Araeta sagardotegira egingo dan urtekerarako izen-emotea liburutegian.

Hilaren 18an izango dan Kolazino Mendi Eguneke 24 eta 16 kilometroko lasterketetarako eta 16 kilometroko mendi martxarako izen-emotea zabalik dago www.kolazinomendieguna.com webgunean.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

Hilaren 4ra arte, andren afarirako izena emon daiteke Ugatxa jatetxean.

19:00etan, Dimako alkarteen arteko koordinazino bilerea udal pleno aretoan.

IGORRE

09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Mailegu zerbitzua, arrastiz astelehenetik eguenera eta goizez barikuetan eta umeen jai eta opor sasoian.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Bonodenda kanpainea martxan. Bonuak, Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan erosi daitezke, astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era, eta martitzien eta eguenetan 18:00etatik 20:00etara.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik

domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 10era arte, *Saharaiuak eta babeslekua* argazki erakusketea Kotxepin Kultur Etxean.

Martiaren 15era artean egiten dan erosketa bakotxeko 30 euroko 26 bonu zozketatuko dira komertzioetan.

09:00etan, jubilau eta pensinodunen alkarteak antolatuta, Potes eta Fuente Dera bidaia. Tallerretan.

Pausoz pauso erronkarako izen-emotea www.lemoa.net webgunean.

ZEANURI

Hilaren 26ra arte, Gorbeia Suzien lasterketerako izen emotea zabalik gorbeiasuzien.eus webgunean.

18:30etik 19:30era, ate irekiak ikasketa gelan (ludoteka gaineko gela). Bertan emongo dabez erabilereari buruzko azalpenak. Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

18:00etatik 20:00etara, hilaren 10era arte, *Bertakoak, mujeres de aquí* erakusketa ibiltaria Ermitabarriko San Antonion.

MARTIAK 2
AREATZA

19:30ean, Areatzako emakume eta gizonen berdintasunerako III. Planaren aurkezpena udaletxeko areto nagusian.

ARTEA

20:00etan, Martiaren 8ko manifestazinoaren ostean egingo dan jantzarako ensaioa kiroldegian.

IGORRE

17:00etan, hondakinen karakterizazinoa kalean, Kultur Etxearen aurrean; 19:00etan, Arratia Garbia kanpainako hondakinen gaineko berbaldia Kultur Etxean.



Kuttune folk taldearen kontzertua egongo da Igorreko Kultur Etxean hilaren 4an

Kuttune, Nerea Quincoces perkusionista eta abeslariaren taldea da. Berak eta beste 10 musikarik, instrumentazino eta soinu giro desbardi-nak sortuko ditue, martiaren 4an, 20:00etan, Igorreko Lasarte Aretoan.

Euskal musikearen erroen eta hurreko kulturen inguruko ibilbi-dea egingo dau Kuttunek, urrunagotik datozen beste soinu batzuen ohiartzuna daukan musikea joz. Izan be, euskal folklorean oinarritu-tako eta alboko kulturakaz zein munduko musikakaz fusionaутako konposizinoak ditue euren erreperitorioan. Artxibo, kantutegi eta gra-bazinoen inguruan egindako ikerketan oinarritzen dira eta antxinako eta oingo soinuak buztartzea dabe helburu.

Ikuskizunaren musikea *Hauxe da!* izeneko diskoan dago. Diskoaren portadan Alejandro Quincoces margolariaren lanak ikusi daitezke.

17:30ean, Berbalagunek antolatuta, Errigorako orio dastaketea Kultur Etxeko plazan.

18:00etan, Igorreko andra eta gizonen bardintasun egoerearen diagnostikoaren aurkezpena Kultur Etxean.

LEMOA

17:30etik 19:00etara, berrerabilpena landuteko eskulanak, jubilauenean.

ZEANURI

18:00etan, *Norberaren mobilaren erabilpena* 2. zatia berbaldia Patricia Muñoz eta Mikel Arrietaren eskutik jubilauen egoitzan.

MARTIAK 3
BEDIA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Autodefensa feminista* tailerreko lehenengo saioa Ester Lopez Monjeren eskutik Errekaondo udal lokalean.

IGORRE

10:30etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia kanpainako informazino puntua Lehendakari Agirre kalean; 19:00etan, berbaldia Kultur Etxean.

19:00etan, *Sex Toy, panpinen matxinada* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

LEMOA

19:00etan, *Mendebaldeko Sahara Lemoan* berbaldia, kanpamentuetatik zuzenean testigantzea; ostean, te eta kus-kus dastaketea Karabie Gaztetxean.

ZEBERIO

16:30ean, Inuntzak eta Udalak antolatuta, Ermitabarriko biodibersidadea pizten: habi kutxak eta janlekuak Ermitarriko basotxoan eskegi.

MARTIAK 4
IGORRE

10:30etik 13:30era, Arratia Garbia kanpainako informazino puntua Lehendakari Agirre kalean.

12:00etan, *Emakumeen gorputzak merkantilizatzea* berbaldia Towanda Rebels-en eskutik; ostean, mahai-ingurua

eta *Hola Guerrera* euren liburua sinatzea Liburutegian.

LEMOA

Ernairen 10. urteurrena. 12:00etan, harrerea Karabie Gaztetxean; 12:15ean, *Arratien lan eta bizi gure dogu* LAB eta Ernairen eskutik; 15:00etan, bazkaria, txartelak Igorreko Axular Herriko Tabernan eta Lemoako Atxeta tabernan; 16:30ean, bazkaloste musikatua Otoi taldeagaz; 18:30ean, Bizitzeko modu bat "baflepoteoa" Igorren eta gauean Dj Feministrak Axular Herriko Tabernan. Egun osoan zehar 10 urtez *ernai* erakusketea.

MARTIAK 5
ARRATIA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Arratia herririk herri ibilbidearen bigarren zatia: Dima-Zeanuri. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

IGORRE

17:00etan, zinea, *Un yak en la escuela*; 19:30ean, *Ainarak* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 6
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 26ra arte, Txiki Txoko, Udalekue tarako, Uda Gazte arako eta Ludosport Udako Ludotekarako izen-emotea liburutegian.

IGORRE

10:30etik 13:30era, Arratia Garbia kanpainako informazino puntua Beheko plazan eta 16:00etatik 19:00etara, Lehendakari Agirre kalean; 19:00etan, berbaldia Kultur Etxean.

MARTIAK 7
ARANTZAZU

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia kanpainako informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia Kultur Gunean.

MARTIAK 8
ARANTZAZU

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia Kultur Gunean.

BEDIA

17:30ean, Bediako andren omenez, poesia xuxurlatua tailerra liburutegian; ondoren, 18:30ean, zapatak eta ponpoi moreak ipini plazan eta argazkia atera.

DIMA

17:00etan, parkea apaindu; 18:00etan, Musika Eskolako ume eta familiek *Konplize ditut* kantau eta kontzentrazinoa eta testuen irakurketea. Ostean Igorreko manifestazinora.

ZEBERIO

12:00etan, elkarretaratze instituzionala udaletxe aurrean; 18:00etan, autobusez Bilboko manifestazinora plazatik urtenda. Autobusa debalde. Izena emon 94 648 10 79 telefonoan. 18:00etan, herriko nesken eskupelota partidua. Jai giroa eta kopautxoa.

MARTIAK 9
ARTEA

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia Kultur Etxean.

IGORRE

18:00etatik 19:30era, *Arteterapia* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

LEMOA

17:30ean, berrerabilpena eta birziklapenaren inguruko dokumentalak, *La comunidad de las tres erres* eta *La historia de las cosas*. Ostean, eztabaidea eta solasaldia jubilauenean.

MARTIAK 10
ARTEA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia Kultur Etxean.

19:00etan, *Luze edo motz* Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren binakako bakarrikzkea Kultur Etxean.

BEDIA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Autodefensa feminista* tailerreko saioa Ester Lopez Monjeren eskutik Errekaondo udal lokalean.

DIMA

19:00etan, *Ez da kasualitatea* bertso-saio musikatua eskolako kamaran. Onintza Enbeita, Jone Uria eta Josune Aramendi bertsolariak. Gai-emoile: Idoia Anzorandia. Musikea: Gari Otamendi eta Ixak Arruti.

MARTIAK 11
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, tailerra: *Prebentzioa, autobabesa eta lehenengo arreta mendiko gertakari edo istripuetan*, Euskal Mendizale Federazioaren eta Larrialdiak en eskutik. Gitxieneke adina 12 urte. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

10:30etik 13:30era, Arratia Garbia kanpainako informazino puntua plazan.

DIMA

20:00etan, andren afaria. Poteoa Axlor tabernan hasita; 21:30ean, afaria Ugatxan.

IGORRE

19:30ean, Poesia hegalaria taldearen poesia eta musika saioa Gau Loran.

20:00etan, *Trapu zikinak* antzerkia Lasarte Aretoan.

21:30ean, Unidad Alavesa eta Harria taldeen kontzertuak Kiñu Gaztetxean.

MARTIAK 12
ARTEA

13:00etan, Martiaren 8ko jantza erakustaldia frontoian.

IGORRE

17:00etan, zinea, *El asombroso Mauricio*; 19:30ean, *La maternal* Lasarte Aretoan.

MARTIAK 14
LEMOA

18:30ean, EH Bilduk antolatuta, Mikel Oteroren Lemoako Bistibieta zaborte giaren gaineko berbaldia. Nora doaz gure hondakinak? Zelan dago zaborte giak? Kotxepineko plazan.



KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

FURGONTEA SALTZEAN DOT

1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Interesdunek deitu 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.

TABERNARI BILA

Axular Herriko Tabernan lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu daikie.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Sex Toy: panpinen matxinada* ikuskizunerako.

Aitor Erdozia (Artea)
Aitor Esteban (Zeberio)



2 Areatza Musik and Brewing Musika eta Kultura alkarteak emondako 2022ko kamiseta bana.

Maidar Agesta (Artea)
Carreño-Gorospe familia (Bilbo)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00
f

ASEGURUAk:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
ZUZENBIDE
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis
Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
☎: 94-673-70-87
☎: 609-79-40-54

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: 649 979 115
eta inigoirua@begitu.eus

MARTX⁸AK

EMAKUMEEN* NAZIOARTEKO EGUNA

BATU BORROKA FEMINISTARA!



Arratiako
Udalen
Mankomunitatea
BARDINTASUN ARLOA

begitu ²⁰urte

**BAIETZ
30 LAGUN
BARRI EGIN!**

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.